

Foru Aldundiak 667.000 euro erabiliko ditu egunero 322 pertsona eguneko arretarako landa zentroetara eramateko eta atez ate lekualdatzeko

Ramiro González Arabako diputatu nagusia Gurutze Gorriaren egoitzan izan da, hain zuzen erakunde horrek kudeatzen baitu halako baliabideetarako garraio egokitua

Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 13a. Arabako Foru Aldundiak 667.000 euro erabiliko ditu aurten, Arabako 16 herritan dauden eguneko arretarako landa zentroen (EALZ) 322 erabiltzaile egunero beren etxetik zentrorara eramateko. Zerbitzu horri erantzuteko, 18 ibilgailu daude eta, horien bidez, iaz 75.000 joan-etorri egin ziren eta 669.000 kilometro egin ziren. Guztira, 15 pertsona ari dira zerbitzu horretan lanean, eta Gurutze Gorriko beste 14 boluntariok laguntzen dute joan-etorrietan.

Horri dagokionez, Ramiro González Arabako diputatu nagusiak gaur goizean eskerrak eman dizkio Arabako Gurutze Gorriari laguntza horrengatik, erakunde horrek kudeatzen baitu zerbitzua, eta, era berean, nabarmendu du Administrazioak hirugarren sektoreko erakundeekin batera lan egiteak duen garrantzia pertsonen arreta eta oro har Arabako gizarte zerbitzuak indartzeko.

Diputatu nagusia, Emilio Sola Gizarte Politiken Saileko foru diputatua lagun zuela, Gurutze Gorriaren Gasteizko egoitzara joan da, eta erakunde horrek lurraldean egiten duen lanaren berri izan du. Erakundearen aldetik, Jesús Cantero Gurutze Gorriaren Arabako Batzordeko lehendakaria, Aitor Allende Euskadiko koordinatzaile autonomikoa eta Xabier Manzano Euskadiko Gurutze Gorriko idazkari autonomikoa izan dira.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE), zeina Gizarte Politiken Sailari atxikitako erakunde autonomoa baita, eta Gurutze Gorriak bi lankidetzaz hitzarmen dituzte aspalditik pertsona adinekoei eta gizartean bazterturik dauden pertsonen laguntzeko.



Prentsa Oharra Nota de Prensa

Hitzarmenetatik lehenak ahalbidetzen du adinekoak, baldin eta mugikortasun arazoak badituzte eta arazo horiek galarazten badiete garraio bide publikoak erabiltzea, EALZetara joan daitezela. EALZk udal ekipamenduak dira, eta adinekoei egunez hainbat zerbitzu ematen diete laguntzeko ohiko bizitzaren jardueretan, aisialdikoetan eta denbora librekoetan. Era berean, aukera ematen diete adinekoei beren etxeetan bizitzen jarraitzeko bizi kalitate onargarri batekin. Izan ere, senideekin eta auzokoekin harremanetan jarraitzen dute, egoitza baliabideetara jo behar izan gabe.

Foru zerbitzu horrek ahalbidetzen du lurraldean dauden eguneko arretarako landa zentro guztietara garraio egokitua egitea: Dulantzi, Aramaio, Amurrio, Harana, Arraia-Maeztu, Artziniega, Asparrena, Aiara, Bilar, Iruña Oka, Lagran, Erriberabeitia, Gaubea, Agurain, Zigoitia eta Zuia.

Era berean, garraio egokituko zerbitzu horrek aukera ematen du landa zonan bizi diren adinekoak atez ate lekualdatzeko, gizarte edo osasun arloko jarduerak egiteko.

GOFEk eta Gurutze Gorriak sinatuta dituzten hitzarmenetatik bigarrenari esker, gizarte erakundeak lurraldean abian dituen landa eremuko eta tokiko gizarte ekintzak koordinatzen dira. Ekintza horiek gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten talde eta pertsonentzat dira.